I.

SARRERA

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 21. artikuluan ezartzen denez, Kontseiluak urtero memoria prestatu eta Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari igorriko die. Bertan, aurreko ekitaldiko jarduna azaldu eta jarduketa juridiko-administratiboa hobetzeko egokitzat jotzen dituen iradokizunak aurkeztuko ditu.

Agindu hori garatzeko, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduak, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, 38.2 artikuluan xedatzen du kontseiluko buruak urteko memoria egin, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko diola, onetsi dezan.

Erregelamendu horren 12.2.f) artikulua ezartzen duenez, berriz, Nafarroako Kontseiluko kide-idazkariak prestatuko du Kontseiluaren jardun memoriaren proiektua.

Aipatutako lanak egin ondoren, Nafarroako Kontseiluak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, 2018. urteko memoria onetsi zuen, ondotik azaltzen den moduan.





ALDERDI OROKORRAK

1.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN SORRERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bidez sortu zen (urte bereko 37. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 26koa). Foru lege horrek 1999ko urriaren 1ean hartu zuen indarra, eta abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen azken xedapenetako bigarrenak aldatu zuten.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legeak, ekainaren 15ean indarra hartu zuenak, indarrrik gabe utzi zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea eta, Nafarroako Kontseilua eguneratzearen, araudi berria eman zion. Araudi horren bidez, kontseiluko kideen kopurua murriztu zen, eta aldatu ziren bai kideak hautatzeko era bai Kontseiluko kideen, kide-idazkariaren nahiz buruaren agintaldiak duen iraupena; halaber, haren irizpenek -ordenamendu juridikoa betetzen dela zaintzeaz gain- abaguneari eta komenigarritasunari buruzko balorazioak eduki ditzakete, gaiaren izaeratik edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatu duelako, eta, orobat, Administrazioak bere helburuak eraginkortasun handiagoz betetzeko bada.

Aipatutako legeez gain, Kontseilua bere erregelamenduaren bidez arautzen da: Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsia eta ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatua, aldatzen duena otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsi zuen Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua.

Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuaren 4.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren xede izandako gaitan ez du txosten juridikoa ematen ahalko Nafarroako Foru Komunitateko edo beste Administrazio Publiko bateko organo edo erakunde batek, ezta Estatuko Kontseiluak ere.

2.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN OSAERA ETA IZAERA.

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko kontsulta organo gorena da. Bere eginkizunak betetzean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen dela begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek abagunearen eta komenigarritasunaren gaineko balorazioak izaten ahal dituzte, gaiaren izaerak horretara behartzen duenean edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatzen duenean, zein Administrazioak eraginkortasun handiagoa behar duenean bere helburuak betetzeko. Era berean, Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objektibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

Nafarroako Kontseilua bost kidek osatuko dute. Nafarroako Parlamentuak proposaturik eta gehiengo osoz hautaturik, Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatuko ditu kide horiek, entzute handia, gutxienez ere 15 urteko lanbide esperientzia eta nafartasun politikoa duten legelarien artean. Honako hauek proposatzen ahalko dituzte postu hutsak betetzeko izangaiak: a) Parlamentu-talde batek edo batzuek. b) Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak. c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

3.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGUNGO OSAERA.

Ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran jardunen du.

2018ko abenduaren 31n honako hau zen Nafarroako Kontseiluaren osaera:

Kontseiluko burua:

Alfredo Irujo Andueza jn. t. garaia

Kontseilukide-idazkaria:

Socorro Sotés Ruiz andre t. garaia

Kontseilukideak:

M^a Angeles Egusquiza Balmaseda and. t. prestua

José Luis Goñi Sein jaun t. prestua

José Iruretagoyena Aldaz jn. t. prestua

4.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGOITZA.

Nafarroako Kontseilua sortu zuen Foru Legearen 1.3 artikuluaaren arabera, erakundeak Iruñean du bere egoitza.

2003ko ekainaren 2az geroztik, egoitza Iruñeko Emilio Arrieta kaleko 8an du, seigarren solairuan.

5.

NAFARROAKO KONTSEILUKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEAK.

Nafarroako Kontseiluak, sortu zuen foru legeak aitortzen dion autonomia organikoaz eta funtzionalaz baliatuz, 2018ko ekainaren 18an egindako bikuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zuen bere plantilla organikoa, lanpostu hauek osatua: legelari bat (funtzionarioa) eta Kontseiluko buruaren idazkaria (behin-behinekoa). Erabaki hori 2018ko 142. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, uztailaren 24an, onetsitako eduki eta xehetasunekin (argitalpenean daude jasota).

2018an, Kontseiluko legelaria José Ignacio Labé Valenzuela jauna da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioa, eta Kontseiluko buruaren idazkaria, berriz, Mónica Muñoz Fernández andrea.

6.

AURREKONTUA.

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako C00000 programan jasota dagoena, 446.324,00 eurokoa izan da 2018ko ekitaldian, honela banatuta:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	197.954,00 euro
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	220.370,00 euro
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	28.000,00 euro
	Guztira	446.324,00 euro

2018ko aurrekontu ekitaldia amaitu eta itxi ondoren, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontu gauzatua honako hau da:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	143.793,91 euro
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	120.828,49 euro
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	17.679,23 euro
	Guztira	282.301,63 euro

2. kapituluko aurrekontuaren betearazpena txikiagoa izatearen arrazoia da, hein handi batean, Nafarroako Kontseiluak ez diela azterlan eta lan teknikorik eskatu kanpoko adituei, eta 2010ean hasitako aurrezpen politikarekin jarraitu duela.

2019ko ekitaldirako, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Kontseiluak berak proposaturik, Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Aurreproiektuko C00000 programan sartu zen, honela banatuta:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	201.818,00 euro
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	220.370,00 euro
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	28.000,00 euro
	Guztira	450.188,00 euro

7.

WEBGUNEAK.

Nafarroako Kontseiluak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garrantziaz jabeturik, bere webgunea sortu zuen 2001ean.

2006An, *www.consejodenavarra.es* webgunearen orriak diseinatu eta berrikusi ziren "Web Content Accessibility Guidelines 1.0" (Web 1.0 edukiaren eskuragarritasunerako jarraibideak) izeneko agirian zehaztutako jarraibideen arabera; jarraibideak W3C-ko WAI lantaldeak eginak dira, eta bat datoz Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legean ezarritakoarekin.

Web diseinu eskuragarriari esker, desgaitasun fisikoak, zentzumenezkoak edo kognitiboak direla eta saretik bazterturik egon ohi diren pertsonak, edo lan ingurunearekin edo oztopo teknologikoekin lotutako mugak dituztenek, webgune bateko edukiak eta zerbitzuak eskura izan ditzakete.

Webgunearen programazio eskuragarriak zerbitzuak eta edukiak plataforma askotatik eskura ditzaketen erabiltzaileen kopurua handitzen du, gunearen ikusgarritasuna hobetzen du bilatzaileetan, eta faktore horiek trafikoa areagotzea dakarte.

Nafarroako Kontseiluaren webgune berria eraikitze prozesuan dago. Webgune berria Nafarroako Gobernuaren Liferay DXP plataforma berrian hedatu ahal izanen da, Nafarroako Gobernuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan.

Nafarroako Kontseiluaren webgunera klikatuta ere sartzen ahal da: "www.cfnavarra.es/consejodenavarra".

8.

IRIZPENEN EDIZIOA.

2018an, Nafarroako Kontseiluak 2017ko irizpenak editatu eta argitaratu zituen, e-book euskarrian, baita 2000-2017 urteetako irizpen bilduma ere, usb euskarrian.



9.

JARDUN INSTITUZIONALA.

Kontseiluko buruak Nafarroako Kontseilua ordezkatu zuen ekitaldi hauetan:

- Otsailaren 21ean Nafarroako Unibertsitatean egindako ekitaldi akademikoa, San Raimundo Peñafortekoaren bestaren kariatara.
- Nafarroako Foruzaingoaren Jaia, otsailaren 25ean.
- Nafarroako Foru Komunitateak Terrorismoaren biktimei egindako aitor-tza eta erreparazio ekitaldia, Nafarroako Gobernuak antolatua, martxoaren 10ean, Terrorismoaren biktimak gogoratzeko Europako egunaren kariatara.
- Vicente Ferrer Fundazioari Giza Eskubideen Aldeko 2017ko Jaime Brunet Nazioarteko Saria emateko ekitaldia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, apirilaren 17an.
- 2017ko "Vianako Printzea" Kultura Saria emateko ekitaldia, Erriberriko Errege Jauregian, maiatzaren 26an.
- "Arkitektura gutxiago, hiri gehiago" nazioarteko V. Kongresuaren inau-gurazio ekitaldia, ekainaren 13an.
- Nafarroako Unibertsitatean 2018-2019 ikasturteari hasiera emateko ekitaldia, irailaren 7an.
- Irailaren 12an egindakoak, Iruñeko Abokatuen Elkargoaren bigarren mendeurrenaren kariatara.

ALDERDI OROKORRAK

- Armadaren Estatu Nagusiko buru Francisco Javier Varela Salas jaunak egindako harrera, Nafarroako Gobernu Militarren egoitzan, irailaren 14an Iruñean Armadaren Kontseilu Nagusiaren bilkuraren karietara.
- 1936ko kolpe militarren biktima nafarrei aitortza eta erreparazioa egiteko ekitaldia, irailaren 15ean, Sartagudako Memoriaren Parkean.
- Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Ligari (Women's International League for Peace and Freedom WILPF) omenaldia egiteko ekitaldi instituzionala, Nafarroako Gobernuak sustatua, Bakearen Nazioarteko Egunaren ospakizunaren karietara, irailaren 19an.
- 2018-19 urte judizialari hasiera emateko ekitaldia, irailaren 21ean.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2018-2019 ikasturteari hasiera emateko ekitaldia, irailaren 28an.
- Kontsulta Funtzioaren XIX. jardunaldiak, Madrilén, urriaren 25 eta 26an.
- Iruñeko Abokatuen Elkargoak egindakoak, bere zaindariaren eguna ospatzeko, abenduaren 15ean eta 16an.



KONTSULTA LANA

1. IRIZPEN ESKAEREN KOPURUA.

2018an, berrogeita hiru irizpen eskaera sartu ziren Nafarroako Kontseiluan.

2. DOKUMENTAZIOA.

Irizpen eskaera horietatik zazpitan espedientea osatu gabe zegoenez, beharrezkoa zen dokumentazioa osatzeko eskatu zen, eta irizpena emateko epea eten egin zen.

3. EMANDAKO IRIZPENAK.

Nafarroako Kontseiluak berrogei irizpen eman zituen 2018an. Horietako hiru 2017an egindako eskaerei dagozkie, eta gainerako hogeita hamazazpi irizpenak 2018an egindako kontsultei.

Hortaz, berrogeita hiru eskaera onartu ziren, eta horietatik hogeita hamazazpitan eman zen irizpena. 2018ko abenduaren 31n, sei espediente zeuden irizpen zain, eta horietatik bost 2018ko abenduaren 11tik aitzina sartu ziren.


Emandako irizpenak hauek izan dira, izaeraren arabera sailkatuta:

Fakultatiboak	3
Aginduzkoak	37

Emandako irizpenak irizpide hauen arabera sailkatu daitezke:

a) Organo eskatzailearen arabera:


Bidaltzailea	Zenbakia
Nafarroako Gobernuko lehendakaria	37
Nafarroako Parlamentuko lehendakaria	3




Nafarroako Gobernuko lehendakariak igorritako eskaeretatik zortzi toki entitateek egindako kontsultei dagozkie, Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legearen 19.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

b) Jatorriaren arabera:

Nondik etorriak	Kopurua
Nafarroako Gobernua	28
Nafarroako Parlamentua	3
Toki entitateak	8
Beste erakunde batzuk	1



Nafarroako Gobernua, departamentuz departamentu:	Kopurua
Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetza	2
Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza	3
Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	6
Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	4
Hezkuntza Departamentua	3
Osasun Departamentua	7
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	1
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	1
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua	1
GUZTIRA	28



c) Irizpenak, gaien arabera:

Gaiak	Kopurua
Konstituzio kontraktasuneko errekurtsioak	0

KONTSULTA LANA

Estatuko oinarrizko legedia garatzeko edo Europako erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeetarako aurreproiektuak egitea.

Irizpen zenbakia: 37 1

Legegintzako foru dekretuen proiektuak. 0

Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, eta haien aldaketak.

Irizpen zenbakiak: 3, 14, 16, 20, 22, 24, 28, 29, 31, 32, 35, 40 12

Berrikusteko administrazio errekurtsuak

Irizpen zenbakiak: 8, 9, 23, 25 4

300.000,00 eurotik gorako kalte-ordainen eskaerak, kalte eta galerengatik

Irizpen zenbakiak: 5, 6, 7, 12, 13, 15, 34 7

Udal mugapeak aldatzeko espedienteak 0

Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena.

Irizpen zenbakiak: 2, 4, 11, 17, 18, 19, 21, 26, 27, 30, 33, 39 12


Administrazio hitzarmen eta kontratuen interpretazioa, baliogabetasuna eta suntsiarazpena, kontratistak aurka egiten duenean.

Irizpen zenbakia: 1 1

Bestelako gaiak

Irizpen zenbakiak: 10, 36, 38 3


GUZTIRA 40



Konparazio azterlana, gaien arabera: 2010-2018 urteak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2010-2018
Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren Erreforma	1	0	0	0	0	0	0	0		1
Estatuko oinarrizko legedia garatzeko edo Europako Erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak								1	1	2
Legegintzako foru dekretuen proiektuak	0	0	0	0	0	0	0	1	0	1
Konstituzio kontraketasuneko errekurtsioak	2	0	5	2	2	0	0	0	0	11
Hitzarmen Ekonomikoaren Erregelamendua	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Lankidetzak hitzarmenak eta akordioak	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Legeak betearazteko erregelamenduak	32	24	18	23	20	13	10	15	12	167
Transakzio judizialak edo judizioz kanpokoak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Berrikusteko administrazio errekurtsioak	3	3	1	1	1	2	8	11	4	34
Administrazioaren ondare erantzukizuna	8	8	10	7	8	11	22	15	7	96
Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena	5	7	12	5	3	8	8	5	12	67
Udal mugapeen aldatetari buruzko espedienteak	0	1	0	0	1	0	0	0	0	2
Administrazio kontratuak.	3	0	3	2	2	0	2	1	1	14
Bestelako gaiak	6	1	0	5	2	2	4	4	3	27
	61	44	49	45	39	36	56	53	40	423

Konparazio azterlana, gaien arabera: 2010-2018 urteak



4.

PRESAKO IZAERAZ EMANDAKO IRIZPENAK.

Presako izaeraz lau irizpen eman dira.

5.

IRIZPENAREN XEDE IZANDAKO GAIEI BURUZKO ERABAKIAK.

Nafarroako Kontseiluak, 2018ko abenduaren 31 arte, kontsulta eta irizpenaren xede izandako espedienteei buruzko 28 xedapen eta ebazpen administratiboren berri izan du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelako edo Kontseiluari jakinarazi zitzaizkiolako Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 36. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 4.4 artikuluan ezarrita dagoenez, *Nafarroako Kontseiluaren txostena jaso duten gaiei buruzko xedapen eta ebazpen administratiboetan adieraziko da horiek Kontseiluak emandako irizpenarekin bat datozen edo ez.*

Urte honetan ikusi denez, erregelamenduzko xedapenetan ohiko bihurtu da “Nafarroako Kontseiluarekin bat” dioen formula erabiltzea.

Esan beharra dago hartutako administrazio ebazpen eta xedapen gehienetan jaso egin direla Nafarroako Kontseiluak bere irizpenetan egindako ohararazpenak.

6.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN BILKURAK.

Nafarroako Kontseiluak 17 bilkura egin ditu 2018an.

7.

IRIZPENEN ZENBAKIZKO AURKIBIDEA.

Irizpena: 1/2018, otsailaren 5koa

Etxarri Aragoiko Udalak eskatutako emakida administratiboaren ebazpena 

Irizpena: 2/2018, otsailaren 5koa

Ofizioz berrikustea Lizarrako Udalak Lizarrako Kirol Hiria egikaritzea buruzko erabakien jabeekin sinatu dituen hitzarmenak eta ondoko eranskinak 

Irizpena: 3/2018, otsailaren 5koa

Nafarroako herriguneen izenak erabiltzeko eta grafikak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen Foru Dekreturako proiektua 

Irizpena: 4/2018, martxoaren 5koa

Ofizioz berrikustea, likidazioen erabateko deuseztasunagatik 

Irizpena: 5/2018, martxoaren 5koa

Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa 

Irizpena: 6/2018, martxoaren 5koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare-erantzukizuna, osasun laguntzagatik 

Irizpena: 7/2018, martxoaren 5koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare-erantzukizuna, osasun zerbitzuen funtzionamenduaren ondorioz 

Irizpena: 8/2018, martxoaren 5koa

Berrikuspeneko errekurtsio berezia, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2017ko urriaren 26ko 2548. Ebazpenaren aurkakoa 

Irizpena: 9/2018, martxoaren 21ekoa

Berrikuspeneko errekurtsio berezia, Oinordetzen gaineko Zergaren likidazioaren aurka 

Irizpena: 10/2018, martxoaren 26koa

Hondakinei eta haien Fiskalitateari buru  Foru Legerako Proiektuak antolamendu juridikoa betetzeari buruz

Irizpena: 11/2018, martxoaren 26koa

Ofizios berrikustea Burlatako  talaren eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazioa

Irizpena: 12/2018, martxoaren 26koa

Administrazioaren ondare-erantzukizuna, meategi-emakidaren luzapenaren deuseztasunagatik 

Irizpena: 13/2018, martxoaren 26koa

Ondare-erantzukizuna, "Alkerdi- oiberria sistema" kultura-intereseko ondasun gisa inskribatzeagatik

Irizpena: 14/2018, apirilaren 16koa

Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak garatzen dituen Foru Legerako Proiektua 

Irizpena: 15/2018, maiatzaren 21ekoa

Nafarroako Foru Administrazioaren  ondare-erantzukizuna, osasun zerbitzuen funtzionamenduaren ondorioz

Irizpena: 16/2018, maiatzaren 21ekoa

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko suhiltzaile edo suhiltzaile-kabo lanpostuak betetzen dituzten lanlekuendako bigarren jarduera arautzen duen Foru Dekreturako proiektua 

Irizpena: 17/2018, maiatzaren 21koa

Ofizioz berrikustea Lizarrako Udalak Kirol Hiria Oncinedan egikaritzat hartutako lurzatien jabeekin sinatu dituen hitzarmenak eta ondoko eranskinak 

Irizpena: 18/2018, maiatzaren 28koa

Deuseztasunaren deklarazioa Nafarroako Errepideen araudia hausteagatik abiarazitako zehapen-espedientean 

Irizpena: 19/2018, ekainaren 18koa

Berriobeitiko Udalaren hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zergaren likidazioa ofizioz berrikustea.

Irizpena: 20/2018, ekainaren 18koa

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua aldatzeko foru dekretuaren proiektua.

Irizpena: 21/2018, uztailaren 26koa

Ofizioz berrikustea 58E/2015 Ebazpena, Galarko udal mugapean haragi-industria integratuko instalazio baterako baimena ematen duena.

Irizpena: 22/2018, uztailaren 26koa

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileak osasun arrazoiengatik birkokatzeke prozedura arautzen duen foru dekretuaren proiektua.

Irizpena: 23/2018, uztailaren 26koa

Berrikuspeneko errekurtsio bereziak, Irakasleen eta maisu-maistren kidegoetan aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrendetako izangai baztertuak onesteko Ebazpenaren kontra.

Irizpena: 24/2018, uztailaren 26koa

Tributuei buruzko Foru Lege orokorraren xedapenak zerga arloko arau-hauste eta zehapenen arloan garatzeko foru dekretuaren proiektua.

Irizpena: 25/2018, uztailaren 26koa

Berrikuspeneko errekurtsio berezia, Egoera berezietan dauden familiei bateragarritasuna errazteko diru-laguntzak ukatzearen kontra aurkeztua.

Irizpena: 26/2018, uztailaren 26koa

Oltza Zendeako Udalaren hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zergaren likidazioa ofizioz berrikustea.

Irizpena: 27/2018, irailaren 17koa

Lokala irekitzeko lizentziaren ofiziozko berrikuspena, Uharteko Udalak eskatua.

Irizpena: 28/2018, irailaren 17koa

Foru dekretuaren proiektua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua aldatzeko.

Irizpena: 29/2018, irailaren 17koa

Foru dekretuaren proiektua maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzeko.

Irizpena: 30/2018, irailaren 24koa

Ofizioz berrikustea eta deusez deklaratzeko Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 14an emandako 130/2009 Ebazpena.

Irizpena: 31/2018, irailaren 24koa

Foru dekretuaren proiektua ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen dituen 225/1998 Foru Dekretua aldatzeko.

Irizpena: 32/2018, urriaren 8koa

Foru dekretuaren proiektua Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez garatzeko erregelamendu berri bat onesteko.

Irizpena: 33/2018, urriaren 17koa

Ofizioz berrikustea Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan, frantse-seko espezialitatean, sartzeko prozeduran gainditu duten pertsonen ze-rrendak, eta bestelako ebazpenak.

Irizpena: 34/2018, urriaren 17koa

Kalte-ordainen eskaera, osasun zerbitzuen funtzionamenduak eragindako kalte eta galerengatik.

Irizpena: 35/2018, urriaren 17koa

Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higiene eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen Foru Dekre-turako proiektua.

Irizpena: 36/2018, azaroaren 9koa

Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako Foru Legerako proiektua.

Irizpena: 37/2018, azaroaren 26koa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru sektore publiko instituzionalari buruzko Foru Legerako aurreproiektua.

Irizpena: 38/2018, azaroaren 26koa

Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Legerako Proiektua.

Irizpena: 39/2018, azaroaren 26koa

Ofizioz berrikustea jardunik gabeko elkargokidearen izaera hartzea Tafa-llako Abokatuen Elkargoan.

Irizpena: 40/2018, abenduaren 20koa

Nafarroako Foru Komunitateko haur eskoletan eta unibertsitatez kan-poko ikastetxeetan elikadurako eta ariketa fisikoko ohitura osasungarriak sustatzeko programetako baldintzak ezartzen dituen Foru Dekreturako Proiektua. 

IV

OHARTARAZPEN ETA IRADOKIZUNAK

1.

XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEKO PROZEDURA.

Aurrez egindako iradokizunak gorabehera, oraindik ere igorritako espedienteetako batzuetan ikusten da ez dagoela txosten edo agiririk justifikatzeko prestatze lanetan parte-hartzea edo gaian eskumenak dituzten eta proiektatu den xedapeneko interesdun edo kaltetu diren beste departamentu edo erakunde autonomo batzuen irizpidea, bai eta ere xedapen hauen prestatze lanetan esku hartu behar duten kide anitzeko organoetako zitazioak, gai zerrendak, deialdietan igorritako agiriak eta aktak.



2.

NAFARROAKO KONTSEILUKO IRIZPEN ESKAEREN GAINEAN.

Bidezkoa da Nafarroako Administrazio Publikoek kontsulta organo honen irizpena jasotzeko igorritako espedienteak tramitatzeke orduan ikusi den pixkanakako hobekuntza adieraztea.

Hala ere, komenigarri irizten diogu aurreko urteetako memorietan adierazitako ohartarazpenak eta iradokizunak berresteari, izan ere, zenbait kasutan ez baitira behar bezala betetzen lege eta araubide eskakizunak eta horrek ezinbestek dakar gabeziak dituzten espedienteak osatzeko eskaera, tramite desatsegina, beti ere.

Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru legearen 18. artikulua dioenez, *Kontsulta eskaerarekin batera, aztertuko den aferaren inguruko dokumentazio osoa aurkeztu beharko da. Kontseiluak uste badu espediente osorik ez dagoela, kontseiluburuaren bitartez eskatzen ahalko ditu beharrezkotzat jotzen den dokumentazio osagarria. Kasu horretan, irizpena emateko ezarritako epea eten egingen da; behin baino ez, betiere.*

Aipaturiko agindua garatuz, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 28.1 artikulua xedatzen du *Kontsulta igortzeko idazkia, kontsulta egiteko ebazpena edo erabakia erantsita, Nafarroako Kontseiluko buruari zuzenduko zaiola. Eskabideari, gainera, honakook erantsiko zaizkio: espediente, osorik tramitatua, eta*

OHARTARAZPEN ETA IRADOKIZUNAK

indarra duen araudiak eskaturiko aldez aurreko txostenak, aurrekariak eta arrazoiak; eta, halaber, kontsulta egiteko arrazoia dena, hots, xedapen baten proiektua edo ebazpen proposamena.

Lege mailako edo erregelamendu mailako ebazpen baten aurreproiektua edo proiektua denean irizpenaren gaia, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 28.2 artikulua on-dokoa xedatzen du: *agintari kontsultaegileak, proiektuaren bi kopia baimendu igorriko ditu; bi horietako bati idazteko baliatu diren aurrekariak eta bibliografia erantsiko zaizkio, eta Kontseiluaren artxiboan geratuko da.*

Bere aldetik Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 28.4 artikulua on-dokoa xedatzen du: *aurkeztutako agiri guztiek zenbakiak izan beharko dituzte, eta aurretik aurkibidea ezarriko da, hobeto ordenatu eta erabiltzeko.*

Kontsulta zehatz bakoitzean eman diren aginduak betetzeko espediente tramitatua bere osotasunean eman behar da, indarrean den araudiak eskatzen dituen dokumentazio eta aurretiazko txosten guztiekin. Hori ez da gertatu kasu guztietan.

Nafarroako Kontseiluari igorritako dokumentazioa ikusirik, 2018an lau eskaeratan espedientea osatu gabe zegoenez, beharrezkoa zen dokumentazio osagarriarekin osatzeko eskatu zen eta ezinbestean, irizpena emateko epea eten egin zen eta, ondorioz, atzerapena izan zen, administrazio kontsultaegileak atzerapena izan zuelako espedientea osatzeko orduan.

2018an izan diren gabezia handienak berriz ere izan dira, jada adieraziak baziren ere, Kontseilu honen aurreko urteetako memorietan egindakoak: kontsultaren xede den ebazpen proiektua ekarri ez izana; ebazpen proposamenari dagokionez erabaki bat hartzeko toki entitateek oinarri izanzen duten txosten juridikorik ez izana; interesdunei entzunaldia ematea; eta, erregelamenduzko xedapenen proiektuetan, proiektuko bi kopia baimenduak ekarri ez izana, horietako bat proiektua idazteko balio izan duten aurrekariak eta bibliografia dituela.

Funtsean, Kontseilu hau sinetsita dago ikusi eta deskribatu diren gabeziak konpontzeak prozeduraren intrukzioa hobetzen lagunduko duela eta, ondorioz, desio den gisan, azken erabakiaren kalitatea bera hobetuko dela.

Azkenik, ikusi da Kontseilura igorri direla espedienteak, dagokion prozeduran izan gabe indarrean den araudiaren arabera beharrezkoak eta

aginduzkoak diren txosten guztiak. Horri dagokionez, komeni da gogoraztea Kontseilu honen iritziz juridikoaren amaierako izaera, administrazio prozedura erkidearen eta Nafarroako Kontseiluaren arauen arabera, izan ere, irizpena xedapen proiektuaren edo ebazpen proposamenaren gainekoa baita (Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 28. artikulua).

